

- 1- Azpeitiko baliabideetan uraren indarra ahal den neurrian erabiltzea (errotan bezala).
- 2- Herritarrak erabiltzen ditugun tokietan (kiroldegian, igerilekuan, futbol aldageletan, iturrietan,...) ura aurrezteko sistema egokia jartzea (adibidez, fitxen sistema).
- 3- Iturri gehiago ipini herrian eta umeentzako altura egokian egon daitezela.
- 4- Ura aurrezteko, iturriak botoi baten bidez ireki eta bere kasa ixten direnak izan daitezela.
- 5- Uraren erabilera egokia kartel eta ohar bidez lantzea.
- 6- Ur ez edangarria eta euri ura erabiltzen saiatzea ahal den guztian: kotxeak eta kaleak garbitzeko, lorategiak ureztatzeko... Eta gastatzen den ur kopurua kontrolatzea.
- 7- Ibaira egiten diren hondakin isurketen (tailerren, etxeen...) kontrol zorrotzagoa eskatzen diogu Udalari abisuen bidez, eta isunen bidez zigortzea.
- 8- Iturriek urte osoan eman dezatela ur emaria.
- 9- Udaletxetik ura aurrezteko kanpaina egitea (web orriaren bidez, "Azpeitian Zer"en bidez), eta ohar eta kartel bidez ur galerak gutxitzen saiatzea.
- 10- Herria garbitzeko langileak dauden bezala, gure ibaia garbia mantentzeko langileak egotea.
- 11- Ur kontsumoaren ordainketan aldaketak: gutxiengoa (30m³) gastatzen ez dutenei ez ordainaraztea gastatzen ez dutena. Alderantziz, hauek nolabait saritu, eta kontsumoa gaintzen dutenei nolabaiteko zergak ezartzea. Hau izan daiteke ur kontsumoa murrizteko sistema egokia.
- 12- Lorategietan dauden aspersoreak hobeto kontrolatzea. Batzuk ura tokitik kanpo botatzen dute.

- 13- Herriko uraren instalazio guztietan mantenimendu egokia izatea.
- 14- Ikastetxeei (Ikasberri adibidez) komertzio edo negozio prezioa ez kobratzea, gehienez ere etxeetako prezioa izan dadila.
- 15- Herritarrentzat ur kontsumoaren kupo gutxienekoa "oso txikia" izatea eta dohain izatea. Gutxieneko horretatik igotzen dena fakturaren bidez kobratzea. Edo fakturan, gastatzen den ura bakarrik kobratzea.
- 16- Etxe berriak egiterakoan euri ura biltzeko depositoa jarri, gero ur hori aprobetxatzeko.
- 17- Herrian zehar komun publiko gehiago eta erakargarriagoak (pixatoki ekologikoak) ipintzea eta daudenak ondo zaintzea; horrela kaleak garbitzen baino ur gutxiago gastatuko da.
- 18- Azpeitian gastatzen den uraren %30 alferrik galtzen da. Egoera hori hobetzea eskatzen dugu.



Orain dela bost urte, Azpeitiko zenbait ikastetxek martxan jarri genuen egitasmoaren barnean, Eskolako Agenda 21, hain zuzen ere. Aurtengoan, ikastetxe guztiek jorratu dugun gaia **URA** izan da eta bere helburu nagusia hausnarketa bat egitea izan da, beti ere, garapen iraunkorraren ikuspegitik.

Aurtengo proiektuan parte hartu dugun ikastetxeak honakoak izan gara:

-  **Azpeitiko Ikastola KARMELO ETXEGARAI**
-  **IKASBERRI Azpeitiko Ikastola**
-  **IRAURGI Ikastetxea**
-  **UROLA Ikastola**

Lan asko egin dugu gure herrian uraren nondik norakoak ezagutzeko asmoz. Ikastetxean eta ikastetxetik kanpo egindako ekintzen eta irteeren ondorioz, emaitza ugari atera ditugu eta, txosten honen bidez, herritarrei helarazi nahi dizkizuegu. Zuek ere ondorioak atera ditzazuen.

IRAURGI IKASTETXEA LH

Ura gure altxorra dela jabetzeko, gaiaren inguruan gauza asko ikasi ditugu:

- Uraren ezaugarriak.
- Ura gure planetan hiru egoeratan aurki dezakegula.
- Ura modu egokian erabiltzen, aurrezten, guztiok aukera izan dezagun altxor horretaz disfrutatzen.
- Uraren kutsadura: industriak, hiriguneetako isurketak, nekazaritza eta abeltzaintza.
- Araztegiak gaur egun ezinbestekoak dira ibaietako uren kalitatea behar bezala mantentzeko.
- Ura gure herrian: Urola arroan dauden ibaiak, errekek, urtegiak, araztegiak, herriko iturriak...



Azpeitiko Ikasleen Konpromisoak

- Ikastolan, etxean eta hirian ura era egokian erabili eta besteak aholkatuko ditugu.
- Etxeko eta herriko ura erabiltzen den guneeetan ohitura egokiak landu eta bertako arauak errespetatuko ditugu.
- Herriko kanpainetan parte hartuko dugu.
- Ura modu egokian erabiliko dugu, guztiok izan dezagun altxor honekin disfrutatzen aukera.
- Saiatuko gara Azpeitiko iturriak, ibaiak, errekek... hobeto ezagutzen eta zaintzen.
- Gure uraren kantitatea eta kalitatea hobetzeko lortzen diren sistemak aurrera eramateko jarrera baikorra izango dugu.
- Ura aurrezteko gure esku dauden hainbat gauza egiteko prest gaude:
 - Ez erabili ura jolasteko. Behar denean bakarrik erabili.
 - Itxi iturria gorputza eta eskuak xaboitu bitartean.
 - Bainatu ordez dutxatu.
 - Ondo itxi iturriak.
 - Garbigailua ondo bete.
 - Berrerabili barazkiak garbitzeko erabiltzen den ura (landareak urretzeko...).
 - Ez ibili jolasten komuneko bonbarekin.
 - Erabili naturari kalte egiten ez dioten produktuak.
 - Komuneko zisternetan ura aurrezten duten sistemak ipini (zisterna barruan botilak sartuz).
 - Ipini atomizadoreak iturrietan.

Gure ikasketan lagungarri izateko, iteera ugari egin ditugu:

- Igarako ur-erota ezagutzera joan gara.
- Herriko iturrien azterketa egin dugu, argazkiak ateraz, ondoren, horma-irudiak egiteko asmoz.
- Nuarbeko Ibai Eder urtegia eta Ibai Eder edateko uren araztegia bisitatu ditugu.
- Urola ibaiaren zati bat aztertzerara joan gara.

Guretzako
ituminik
politena.



AZPEITIKO IKASTOLA KARMELO ETXEGARAI

UROLA IKASTOLA

Ikasturte honetan URA altxor preziatua dela ikasi dugu. Ura naturan, urak bizidunontzat duen garrantzia, uren tratamendua, uraren erabilera, kontsumoa eta honen ondorioak...



Horretarako, hainbat ekintza egin ditugu:

- Behaketa desberdinak etxean, ikastolan eta kalean.
- Informazio bilketa eta hauen inguruan gogoetak.
- Instalazioetara bisitak: Nuarbeko Ibai Eder urtegira, Oñatzeko Ibai Eder edateko uren araztegira, Igarako errotara...

- Honek guztiak zertarako balio izan digu?** Ura ondasun mugatua dela eta zaindu beharrekoa dela konturatzeko.
- Eta ondoren?** Gure aldetik ura errespetuz erabiliko dugula ziurtatzeko konpromiso batzuk hartu ditugu.



- Urak naturan betetzen duen zikloaz aritu gara.
- Gure etxera iristen den ur horniketari buruzko xehetasun guztiak ezagutu ditugu, Ibai Eder urtegira eta Ibai Eder edateko uren araztegiira joanez.
- Gure ur zikinei ematen zaien tratamendua ere bertatik ezagutu dugu, Badiologiko hondakin uren araztegia bisitatu.
- Ibailde programan parte hartu dugu, gure herriko erreken egoera aztertuz.
- Azterkosta programan ere parte hartu dugu.
- Zumaiako Urradura Plataforma ezagutu dugu Algorrira joanez. Hango algak eta animalia bitxiak ikusten gozatu dugu.



IKASBERRI AZPEITIKO IKASTOLA

● Ikasturte honetan, uraren inguruan ekintza ugari burutu ditugu:


- ✎ Uraren zikloa lurrean aztertu, ur azpiko urak, ur berdeak (bizidunetako urak)... kontuan izanik.
- ✎ Ura eta janarien arteko erlazioa aztertu, mahainguru eta esperimntuen bidez.
- ✎ Marrazki eta irudien bidez uraren erabilera egokiak landu.
- ✎ Ur gezaren garrantziaz jabetu eta uraren erabilera eta kudeaketa aztertu.
- ✎ Ikastolako komunitako erabileraren neurketa egin, taula eta grafiko bidez adieraziz.
- ✎ Azpeitiko uraren kudeaketa datuak aztertu eta konparaketak egin, emaitzak grafiko eta taulen bidez aurkeztuz.
- ✎ Gure inguruko erreken egoeraren azterketa sakona burutu.
- ✎ Zenbait bisita ere egin ditugu: Ibai Eder urtegia, Igarako errotara...



IRAURGI IKASTETXEA DBH

Burutu ditugun jarduera eta irteerak:

- ✎ Sastarraingo baserri eskolan (Zestoan) izan gara eta bertan, uraren tailerrak landu ditugu.
- ✎ Ikastetxean, Kontsumo Tailerren bidez zenbait gai aztertu ditugu: etxeko ekonomia eta aurrekontua, ura aurrezteak eta kontsumitzaileen eskubideak.
- ✎ Gure eskolan dauden txorrotak, komunak, dutxak, iturriak... aztertu eta horien egoera nolakoa den zehaztu dugu.
- ✎ Gure ibaia garbia mantentzeko ikastetxe osoan kanpaina bat burutu da, horma-irudiak eginez eta leloa sortuz.
- ✎ Irteera paisajistikoa eta geologikoa egiteko asmoz Zumaiako Algorrira joan gara.
- ✎ Nuarbeko Ibai Eder urtegia eta Ibai Eder edateko uren araztegia joan gara.
- ✎ Azpeitian ura kobratzeko era aztertu dugu, bertako fakturei begiratu.
- ✎ Azpeitiko erakunde esanguratsu batzuei, duten uraren kudeaketa ezagutzeko asmoz, galdetegi bat pasa diegu (herriko garbitasun zerbitzuei, osasun zentrokoiei...)
- ✎ Azpeitiko bigarren eskuko merkatuko partaide izan gara.



"Ibaia eta H₂O garbia, atmosferaren CO₂ garbia"

"Ura garbirik, su ere garbirik"

"Ibaia garbia, hobe bizia"

